

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura egitaraua datorren asterako

Nafarroako Gobernuak proposamen berriak prestatu ditu datorren asterako: zinema, erakusketak, hitzaldiak eta lantegiak

Astelehena, 2018.eko abenduak 24

Nafarroako Filtotekek zinema oparitzu ospatuko ditu Eguberriak. Asteazkenean “Pasaje a la India” filma eskainiko da; ostegunean “Ángeles sin brillo” lanaren txanda izango da; eta ostiralean Helena Taberna zuzendariaren laburmetraien zantzu bat egonen da ikusgai: “Busto de un poeta”, “Emiliana de Zubeldía”, “Alsasua 36” y “Recuerdos del 36”.



“Dora Salazar. Inspiración. Espiración. Expiación” erakusketa, Nafarroako Museoko Kaperan.

Erakusketen alorrean, badago non aukeratu eta hauek dira zabalik mantentzen diren erakusketak: “Karlismoa zineman” Karlismoaren Museoan; “Macla, mamua, bismuto, vicario” Oteiza Museoan; “Dora Salazar. Inspiración. Espiración. Expiación” Nafarroako Museoko Kaperan; “Baxenabarre, lurralde berezia” eta “Lapoblación EAN-en” Nafarroako Errege Artxibo Nagusian; eta “Oinez eta eskuz” Huarte Zentroan. Azkeneko erakusketa honen sortzaileek hitzaldi bat eskainiko dute orain arte Huarte Zentroan burutu duten lana azaltzeko.

Huarte Zentroak berak “Ikerketa tresnak: Antropologia eta zinemaren arteko topaketak” jardunaldiak aurkezten ditu aste honetan. Olatz González-ek zuzentzen duen topaketa honetan antropologia eta zinemaren arteko aliantzatik eratorritako tresna kontzeptualak eta metodologikoak aztertuko dira.

Bere aldetik, Oteiza Museok lantegi bat eskaintzen du bere Bilduma osatzen duten eskulturen historia propioa ezagutzeko, “Eskulturek historia bana dute barnean”.

Bukatzeko, eta astero bezala, Nafarroako Liburutegiak haurrentzako eskaintza bat antolatu du: “Cuentos Contigo”. Maria Jesús Jodarrek gidatuko du 6 eta 10 urte bitarteko umeei zuzendutako proposamen literario hau.

Ezagutu itzazu kultura [egitarauaren](#) xehetasun guztiak [esteka honetan](#).